

**Makina bat kontu**  
Felazioa eta  
eztarriko minbizia

▣ *Ezpalak*  
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*  
▣ *Makina bat kontu*

Thesi  
Pirinioetako  
zeharkaldia III:  
Orbaizeta-Larraine

ARGIA

erdiko kainera

kultura eta aisia

# Errusiako koreografo bizkaitarra

## Vladimiro

Gerardo Vianaren bizitzak zine gidoi batetik ateratakoa ematen du. 1925ean jaio zen, Bizkaiko Meatzetan, eta 1937an, gerraren kariaz Errusiara alde egindako umeetako bat izan zen. Erbesterako azken ontzian joan zen Viana; astebete geroago, faxistek Bilbo hartu zuten. Behin Errusian, bizkaitar nekazekin honek bizitza zeharo berriari ekin behar izan zion. Eta gazte-gazterik hasi zen bere patua idazten. Umezurtzen hezitzaile, dantzari klasiko trebe eta koreografo bikain modura lan handia egin zuen Vianak. Baita ospea erdietsi ere. Sobietar Batasunean pertsonaia ezaguna izatera ailegatu zen, bere koreografieiei esker: 1986an, ballet klasikoari buruzko lehenengo entziklopedia argitaratu zen Sobietar Batasunean, eta "Vladimiro" 40ren bat aldiz aipatu zuten. Ordurako, gurpildun aulkiari iltzatuta zegoen, 70eko hamarkada amaieran, antzezpen batetik bueltan izandako auto-istripu latz baten erruz. Hala ere, gauza izan zen koreografiaren bat gehiago sortzeko horren ostean.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona





# «Zenbat euskal dantzari on, eta denak joan behar izan dira atzerrira»

ORAIN, VIANAK 15 urte daramatza Gasteizen bizitzen. 1994an Espainiako Arte Ederretako Domina jaso zuen, baina zoritxarrez, erbestean erdietsitako aitopena ukatu egin dio sorterrriak. Azken hilabeteetan, nolahi, zenbaitzuk gogoratu dira, huts hori bete nahian edo. Apiril amaieran, Bilboko ABBE elkarteak omenaldia egin zion, Dantzaren Nazioarteko Eguna zela eta. Ekain erdialdean, bere autobiografia argitaratu du Karrantzako Udalak, mamitsua, zinez.

**Nocedalen jaio zinen, Ortuellan, baina oso txikia zinela joan zineten Karrantzara, ezta?**

Ez. Lehenago Gallartara joan ginen; han Dolores Ibarruriren auzokidea izan nintzen. Geroago, 32an, Karrantzara joan ginen.

**Zertaz bizi zineten Karrantzan?**

Gure aitak pentsatu zuen erromerietan saltzeko gauzak egin genitzakeela. Eta hala

hasi ginen, erromeriaz erromeria, piruliak eta bestelako gozokiak saltzen. Hantxe ibiltzen nintzen ni, jota, fandango eta abar dantzatzen. Abestu ere egiten nuen, ahots ona neukan. Edozer dantzatzen nuen, ezpata dantza edo dena delakoa. Oso gustuko nuen euskal dantza. Horregatik izan naiz SESBko antzokietan euskal koadroa antolatu duen bakarra.

**Zelan joan zinen Errusiara?**

*Habana* ontzian joan ginen Bordeleraino, Frantziaraino, eta handik beste ontzi batera eraman gintuzten.

**Errusiara ailegatuta, lehenengo asteak ez ziren gozoak izango...**

Leningradora heldu ginen, oraingo San Petersburgora, eta han oso ondo hartu gintuzten. Baina asko ginen eta harrera-etxe des-

berdinetara bidali gintuzten. Ni eta beste 100 ume Moskuko 12. etxera joan ginen.

#### Ikasi beharko zenuten...

Bigarren hezkuntzako irakasgai guztiak. Eta hango hizkuntza, zer esanik ez.

#### Ikasteko, baina, errusieraz jakin behar lehenago...

Hasieran gaztelaniaz egiten genuen guztia, hezitzaileak espainiarrak ziren eta. Baina gutxika-gutxika espainiera eta euskara kendu zizkiguten, eta biak galdu genituen. 15 urte neuzkala, Ufa hirira eraman ninduten, abiazio-teknikaria izateko ikas nezan. Baina ez nuen hura gustuko. Moskun, ordurako, hasita nengoen balleta ikasten. Oso irakasle ona neukan, eta dantza klasikoa ondo moldatuko nintzela esaten zidan hark. Kontua da Moskura ihes egin nuela atzera.

#### Orduan, trebea zinen balletean...

Bai. Baina aldi berean, ohartu egin ziren pedagogia ere gustuko nuela, umeak beti nire alboan ibiltzen ziren. Ufatik ihes egin nuenean, ez zidaten Moskun errolatzen utzi –gerra zen, ez zioten inori uzten–, eta Bielorrusiara eraman ninduten. Ordurako 16 urte neuzkan. Errusiar umezurtzen hezitzaile izendatu ninduten, eta hala jardun nuen hainbat urtez, leku batetik bestera. Besteak beste, Grodnora (Bielorrusia) eraman ninduten, eta han eman nuen urte gehien. Kontuak kontu, SESBeko irakasle emeritu ohore-domina daukat.

#### Hura zenuen lanbidea, beraz. Eta dantza?

Dantza ere irakasten nien umei. Eta kantua. Eta errusiera ikasten nuen. Nik lan handia egin behar nuen, asko ikasi... Dantza ere bai; Grodnoko taldean, esaterako, bakarlaria nintzen. Halako batean, Komsomolek [Alderdi Komunistako gazteriak] nazioarteko brigada antolatzea agindu zidan, frontera joateko. Poloniako mugatik hurbil eraman gintuzten, soldaduen aurrean dantza egitera, eta itzultzerakoan

bonba bat jausi zen gure kamioiaren alboan. Denak hil ziren, ni eta beste bat izan ezik. Baina niri hanka biak zauritu zizkidan bonbak. 19 urte neuzkan.

#### Harrezkero goi mailako dantza utzi behar izan zenuen.

Ez guztiz: hamabost urte eman nituen koreografo. Eta orduan, Moskun, Gurutze Gorria eskatzen hasi zen gerran joandakoak Espainiara itzultzeko. 1956an hasi ziren jendea etxera bidaltzen, eta ni 57an heldu nintzen Bilbora. Berehala hasi nintzen lanean, ballet irakasle eta zuzendari modura.

#### Baina, zauritu zintuztenetik 57ra arte, zer egin zenuen Errusian hezitzaile modura lanean aritzeaz gain?

Grodnon lan egiten nuen bitartean, musika-pedagogia ikasi nuen lau urtez. Pianoa jotzen dut, akordeoia ere bai... Bilbora ailegatu orduko, banekien hori guztia. Eta Bilbon ez zegoen ezer, Pilarinen akademia eta Olaetarena baino ez.

#### Ezagutzen zenuen norbait?

Karrantzan bizi nintzenez, neskatila batekin kantatzen nuen elizaz eliza. Hark ikusi ninduen, eta galdetu zidan, “zer moduz lana?” “Ballet irakaslea naiz eta ez dakit nora jo”, erantzun nion. “Dantza klasiko zuzendari bat behar da, bada”, hark berriz. Sindikatu bertikaleko arduradunarenganaino eraman ninduen, eta hark lagundu zidan. Horretan egin nuen lan urte eta erdiz, eta horrez gain dantza eskolak eman nituen ABAOn. Oso ondo ibili nintzen Bilbon.

#### Labur, ordea...

Izan ere, familiaren bila itzuli nintzen SESBera, eta gero ez zidaten berriro hona bueltatzen utzi. Han nengoela, Grodnoko ofizio eskolan dantza klasiko eta ballet saila zabaltzeko eskatu zidaten, eta hala egin nuen. Bitartean, San Petersburgon ikasi nuen lehenago aipatu dudana: abesbatzak

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko  
Euskal Fundazioaren babesarekin

## JUAN ZELAIA

### VII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 €**

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

**Irailaren 30a arte.**

Tel.: 948 326535 / soltxate@pamiela.org / Arauak: www.pamiela.org





eta ballet-koreografia. Han denei ematen zieten ikasteko aukera, izan ere.

**Garai hartan ospe gehien eman dizuten koreografiak muntatzen hasi zinen... Batez ere, *Miniaturas españolas*...**

Bai, San Petersburgoko Kirov antzokian muntatu nuen hura, 1967an, eta gero SESB osoko beste hamalau aretotan antzeztu zen, hainbat urtez.

**Ordurako hori zenuen ogibidea?**

Ez, nik betiko lanbidean segitzen nuen.

**Eta nondik ateratzen zenuen denbora?**

Arin egiten nuen eta... Besteek urtebetean egiten zutena, nik hilabetean.

**Gainera, zuk zeuk egiten omen zenituen jantzien diseinuak, eta jantziak josi ere bai...**

Bai, bai, nik josi egiten dut, eta brodatu, inork irakatsi gabe. Neuk egin izan dut hori guztia.

**Lan eskerga hori egiten zenuen bitartean, Euskal Herrira itzultzen saiatzen zinen?**

Urtean bitan. Eta urtean bitan baimena ukatzen zidaten. Espainiak baimena ematen zidan sartzeko, baina Errusiak irteteko ez. Eta horrela 75era arte. Andropovek lagundu zigun, azkenean. Berarekin hitz egin nuen eta...

**Andropovekin?!**

Bai, baina hura kasualitate hutsa izan zen. Ni Moskura joaten nintzen, KGBra, itzultzeko baimen eske, eta behinola berarekin egin nuen topo. Oso atsegin zuen balleta, eta nirekin hitz egiten hasi zen.

**Gerardo Viana  
gaztetako argazki  
sorta batean.**

Hori gertatu zitzaidanean hamabost antzoki neuzkan nire muntaia bat noiz emango zain.

**Andropov KGBko presidentea zen orduan, ezta?**

Bai. Eta hari esker itzuli ahal izan ginen alaba eta biok. Turista modura. Gero istripua eduki nuen, 1978an.

**Horrek ez zintuen geldiarazi, baina. Koreografia gehiago egin zenuen, *Gernika* gogoangarria besteak beste.**

Bai, hainbat urtez.

**Istripua 1978an eduki zenuela esan duzu, baina hori SESBn gertatu zen. Noiz etorri zinen behin betiko Euskal Herrira?**

1992ko martxoan, errainarekin, bilobarekin eta semearekin. Nire semea irakaslea da Gasteizko kontserbatorioan.

**Zer deritzozu Euskal Herriko dantza klasikoaren egoerari?**

Oso txarto dagoela. Eta badago eskolarik, baina... Badakizu zer gertatzen den? Ez direla gauzak ikuspuntu egokiaz egiten. Ikusleak badaude, baina... Pena ematen dit, pena handia. Begira zenbat euskal dantzari on dagoen, eta denak joan behar izan dira atzerrira. Baditugu aretoak, badugu gauza asko, baina diru-laguntzarik ez. Errusian hiri guztiek dute beren antzokia, beren balleta, beren orkestra sinfonikoa... tira, gazteria hezteko behar den guztia. Han egunero egoten da ikuskizuna, astelehenean izan ezik. Hori da artisten atsedeen eguna. Dena oso ondo prestatuta dago umeentzat, badituzte pedagogoak, tutore bereziak... Hango ume bati galdetuz gero, jakin beharreko guztia daki. Hemen, aldiz, ez. ■